

MIKE L'en oroipenez

zanaren, izangokoarn Bana

IDATZ ETA MINTZ

Idatz eta Mintz banandu ebazanean, il egin ziran, bata gogortu eta bestea usteldu, desegin. Orduan euran aita mututu eta andik lasterrean il, eta Izadiaren orfeoi nabarmena be ixildu egin zan.

BIZIRIK

Zeuren izan zara Erranbide eta orain ez zagoz gure artean, baiña bizirik dago zure gogo gure biotzetan.

Ez, ez dira il oraindiño ez Idatz, ez Mintz, bizirik, dagoz, eta eurak bizirik dagozan artean Erranbide be bizirik egongo da.

ALKARTU

Gure errian dagozan Idatz eta Mintz guztiak batutea izan da zure asmoa, Idatz bat eta Mintz bat egiteko.

Baiña edozelako Idatz edo edozelako Mintz ez ziran izango.

Lenengo gure inguran, gure etxeetan, bizkaitar euskaldun guztien etxeetan dagozan Idatz eta Mintz, batez be oneik, ezagutu egin bear ziran; gero beste errialde batekoak, eta gero besteetakoak, danak ezagutu gero danakaz bat egiteko.

Zuk alde egin dozu, baiña zure asmoa ez da asmo geratuko, ez zara bakarrik egon, laguntzaile ta jarraitzaile asko izan dozuz, oneik amaituko dabe zure lana!

ITURRI LEGORTUA

Bai, gure euskerak oraindiño iturri asko daukaz, iturri urtsuak gainera, baiña zu barik orretariko iturri bat agortu egin da, urik geien emoten egon danean !

Zenbat ur emongo eban iturri orrek oraindiño !

Ta zelango ura! Goxo-goxoa, ziur nago.


ITURRI BARRIAK

Baiña iturria bakarrik ez zara izan, beste iturri batzuzun zabaltzaile be izan zara.

Batzuk urtsuak izango dira, beste batzuk ez orren beste, baiña orixe zan zure asmoa, iturriak zabaldu, ura inguru guztietara eldu dedin, dana gure euskeraren uragaz bustita itziririk.

AGUR OLERKIA

Omenaldi txikitxo au, zeuk Lauaxeta'ri egindako olerki bategaz gure neuke amaitu.



Lauaxeta, zu lez bizitzaren lorean joan san, orain biok alkarragaz egongo zariela uste dot.

Zaindu egizue euskeraren bidea or goitik.

LAUAXETA'RI

Zidar zuriaren
bide berriak,
arrats beheraren
urre gorriak.
Lehenaren garrak
barnean, lehar:
berritu zaharrak,
berriak eder.
Eder, berri, zahar,
nire atsegin;
zure urre-zidar
beti nirekin.
Odolezko lainoz
hildako arrats:
egunsentiko poz
bizi aberats.